

## **AKTA**

2019ko irailaren 26an Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Alkatea eta gainontzeko hamar korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dituzte:

### **1.- 2019ko uztailaren 24an burututako saioaren akta bere horretan onartzen da.**

### **2.- 2019ko 2.aurrekontu aldaketa.**

Alkateak adierazi du, aurrekontuko zenbait partidetan aurreikusitako kreditua ez dela nahikoa eta aldaketa batzuk egitea beharrezkoa dela. Ajuste batzuk egin beharra ikusi da.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideen aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

**LEHENA.-** Indarrean dagoen 2019ko Udal Aurrekontuaren barnean, kredituak aldatzeko 2019-KALD-000002-00 espedientea onartzea, jarraian zehazten den laburpenaren arabera:

Sarrerak:

- Behin betiko sarrerak.....	6.343.561,32 euro
- Gehikuntzak.....	200.417,16 euro
- Gutxikuntzak.....	<u>35.000,00 euro</u>
Behin betiko sarrerak.....	6.508,978,48 euro

Gastuak:

- Hasierako gastuak.....	6.343.561,32 euro
- Gehikuntzak.....	260.048,31 euro
- Gutxikuntzak.....	<u>94.631,15 euro</u>
Behin betiko gastuak.....	6.508,978,48 euro

**BIGARRENA.-** Erabaki hau jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, hamabost eguneko epean, erreklamazioak aurkez ahal daitezen; horrelakorik aurkeztuko ez balitz, akordio hau behin betirako onartutzat emango dela zehaztuz, erabaki gehigarririk gabe.

**3.-UEMAko ordezkarien aldatzea.-** Alkateak adierazi du, UEMA-ko ordezkariak aldatzea proposatu dela.

Udal Batzarrera bertaratutako korporakide guztien aho bateko botoekin, honako erabakia hartu da:

**Lehena.-** UEMAn Zestoako Udaleko ordezkariak aldatzea: EHBildutik N.O., bere ordezkoa M.A. delarik, eta A.S. bere ordezkoa B.Z. delarik. EAJtik G.M., eta ordezkoa, E.M.

**Bigarrena.-** UEMari erabakia jakinaraztea.

**4.- Udalbiltzako ordezkarien izendapena.-** Alkate jaunak jakinarazten du, Zestoako Udala Udalbiltzako Partzuergoko partaide dela eta orain arte ez dela ordezkari izendatu izan. Zestoako Udalaren ordezkaria alkatea bera eta ordezkoa N.O. proposatu dira.

Udal Batzarrera bertaratutako korporakide guztien aho bateko botoekin, honako erabakia hartu da:

**Lehena.-** Udalbiltzarako Zestoako Udalaren ordezkaria Alkatea izendatzea, eta ordezkoa, N.O.

**Bigarrena.-** Erabakia Udalbiltzari jakinaraztea

**5.- Nafarroako Erdialdeko uholdeen aurrean hitzarmenerako proposamena.-** Alkateak adierazi du uztailan Nafarroan uholdeak izan zirela, kalte handiekin, baina ez zela katastrofe zona bezala izendapena lortu. Tafalla eta Erriberriko udalek diru laguntza eskatu dutela gehitu du, eta elkartasuna adierazteko egokia ikusi da hirurehun euroko laguntza ematea.

Udal honi ondorengo HITZARMENA onartzea proposatzen zaio:

**Lehenik.-** Nafarroako Erdialdean kalteturiko pertsona eta herri guztiekin, eta bereziki Zeru Cañada gaztearen familiarekin, elkartasuna adieraztea.

**Bigarrenik.-** Herri hauetako azpiegitura eta zerbitzuen berreraikuntzan laguntzeko xedearekin, 300,00 euroko dirulaguntza onartzen da.

**Hirugarrenik.-** Udal honek bere herritarrei auzolan ekonomiko honetan parte hartzeko

gonbitea luzatzen die, kalteturiko udalek horretarako ireki dituzten kontu korrontetako batean nahi duten diru laguntza egiteko.

**Laugarrenik.-** Udal honek bere herritarrei hitzarmen honen berri emanen die bere irispidean dauden medioen bitartez.”

Aho batez onartu da.

## **6.- Agitax, 2020 hiri barruko tarifa proposamena.**

Udal Batzarrera bertaratutako korporakide guztien aho bateko botoekin, honako erabakia hartu da:

**Lehena.-** Auto-taxien zerbitzu publikoan 2020. urtean aplikatuko diren tarifak, 2019ko tarifei %0,3 igotzeko AGITAX-ek eginiko proposamena onartzea. Aipaturiko tarifak honakoak dira:

1. TARIFA*	1.TARIFA*			2. TARIFA**		
	Abiasaria	Egindako km	Itxaron ordua	Abiasaria	Egindako km	Itxaron ordua
	3,6325	1,1462	21,8896	3,6588	1,8281	34,4083

\* Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.

\*\*Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 7:00ak arte; igande eta araudi autonomiko eta lokaleko erabakitako jai egunetan 7:00etatik 22:00ak arte, larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n.

**Bigarrena.-** Erabaki hau AGITAX – Gipuzkoako Taxisten Elkarteari igortzea.

**7.- Galdera eta erreguak.** G.k adierazi du, kiroldegia nola irekiko den azaldu dela eta elkarrizketa batzuk ere izan dituela alkatearekin. Bestalde, kirol mahaia ere deitu dela eta proposamen bat egin dela. Gaur Gobernu Batzordean gai bezala ez zegoela, baina landu dela gaia adierazi du. Bere ustez, erabakia motz gelditzen dela adierazi du.

Galderei erantzun zaie.

Azkenik, alkateak adierazi du hurrengo ohiko udal batzarra urriak 31n tokatzen dela, baina 24ra aurreratuko dela, hain zuzen ordenantza fiskalak onartu behar direlako eta

jendaurrean egon ondoren behin betiko onespena eman eta gero Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharra dagoelako, urtea amaitu aurretik. Udal Batzarrak onartu aurretik gaia Ogasun Batzordean aztertuko dela adierazi du.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko bederatziak eta zazpi minutu direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

O. E.  
ALKATEAK,

